Irurako udala

IRURAKO BALIABIDEEN *GIDA*

Kaixo, herritar hori!

Irurako Udalaren izenean, ongi etorri beroena eskaini nahi dizugu. Gida honen helburua Irurara etorritako herritar berriei herritar berriei harrera egitea da, baita gure herria ezagutzera ematea ere. Horrela errazagoa izan dadin bertara egokitzea eta herriko bizitzan parte hartzea.

Gida honetan Irurako oinarrizko beharretarako informazioa aurkituko duzu, eta herrian murgiltzeko eta bertako bizitzan parte hartzeko laguntza ere izango duzu. Iruran dauden baliabideak eta zerbitzuak zure eskura jarri nahi ditugu, eta ziur gaude tresna baliagarria izango zaizula Iruran murgiltzen hasteko.

Ongi etorri Irurara!

Irurako udala

Ongi etorri Irurara!

EUSKAL HERRIA
IRURA

14
5
19
14
1
2
3
7
8
17
15
18
12

1 Irurako Udala
2 Bake-epaitegia
3 Osasun-zentroa
4 Farmazia
5 Haurreskola
6 Ikastola
7 Loatzo Musika Eskola
8 Liburutegia
9 Ikasketa Gela
10 Ametsa Trinketea / Frontoia
11 Kirol-pista
12 Skate-parkea
13 Ur-parkea
14 Haurrentzako jolas-parkeak (3)
15 Kalistenia-parkea
16 Ludoteka
17 Gaztelekua
18 Jubilatuen elkartea
19 Irurako Gazte Alaiak Elkartea

Aurkibidea

ERROLDATZEA 8

BAKE-EPAITEGIA 10

OSASUNA 12

GIZARTE-ZERBITZUAK 14

BERDINTASUNA 16

ETXEBIZITZA 20

HEZKUNTZA 22

ENPLEGUA 26

EUSKARA 28

KULTURA, GAZTERIA, AISIALDIA ETA KIROLA 30

ERAGILE SOZIALAK 32

KOMUNIKAZIOA 35

HIRIGINTZA 36

HONDAKINAK 37

HERRIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA 38

TELEFONO INTERESGARRIAK 39

ERROLDATZEA

Udalerrian bizi zarela ziurtatzeko izena ematea da erroldatzea. Erroldatzea beharrezkoa den administrazioko erregistro bat da, doakoa eta egoitza baimenik gabe egin daitekeena. Zure helbidea helaraziz, erregistro horrek zure ohiko bizilekua frogatzen du. Era berean, erroldatzeak aukera ematen dizu zenbait eskubide publikoren onuradun izateko, hala nola osasun-arreta, gizarte zerbitzuak eta hezkuntza.

Pertsona orok, edozein dela ere gure administrazio-egoera, erroldatu beharra daukagu. Europar Batasuneko herritarra ez bazara eta egoitza-baimen iraunkorrik ez baduzu, errolda berritu behar duzu bi urtean behin.

Erroldatzea pertsonala da, eta ezin du inork beste pertsona bat ordezkatu edo bere izenean izena eman.

HONAKOAK AURKEZTU BEHARKO DITUZU:

- Etxea jabetzan izanez gero, etxearen eskritura sinplea.
- Etxea alokairuan baldin baduzu, alokairuaren kontratua edo jabearen baimena beharrezkoa da: telematikoki edo presentzialki.
- Identifikatzeko agiri ofizial originala (NAN, AIZ edo pasaportea indarrean).

Biztanleen arreta-zerbitzuan (BAZ) egiten da.

Gainera, kanpotik Irurara bizitzera etortzen diren pertsonei harrera zerbitzua eskaintzen zaie erroldatzean, udalerrian egokitzen laguntzeko eta beharrezko informazioa eta baliabideak eskura jartzeko.

BIZTANLEEN ARRETA-ZERBITZUA

San Migel Plaza 1, 20271 Irura

943 69 13 33

09:00-14:00

https://www.irura.eus

irura@irura.eus

Udaleko APPa: Irura

TOLOSALDEKO HARRERA ZERBITZU INTEGRALA- HARRERAGUNEA

Informazioa, orientazioa eta deribazioa Tolosaldeko baliabide eta zerbitzuetara.

Tolosaldean bizi diren edo biziko diren atzerritar jatorriko pertsonei zuzenduta dago.

Tolosaldea Garatzen-eko bulegoan
Astelehena, asteartea: 10:00-14:00
Asteazkena: 15:00-19:00

Villabonako udalean Osteguna: 10:00-14:00

Alegiako udalean Ostirala: 10:00-14:00

Aurretik hitzordua hartu beharko da telefonoz edo mail bitartez:

747 41 72 55 harreragunea@tolosaldea.eus

BAKE-EPAITEGIA

Irurako Bake-epaitegia munta txikiko gaiak ebazteko eta Erregistro Zibilarekin lotutako administrazio-izapideak egiteko funtsezko erakundea da. Erakunde horrek bermatzen du, Irurako herritarrek jaiotzak, ezkontzak, heriotzak eta izaera ofizialeko beste kudeaketa batzuk inskribatzeko zerbitzuak eskura izatea.

AURREZ AURREKO ARRETA-ZERBITZUA

Peio Arrese-Igor, 1

747 40 22 34

Asteartea: 09:15-12:30

epaitegia@irura.eus

OSASUNA

Osasun-asistentzia doakoa eta publikoa da Iruran eta Euskal Autonomia Erkidego osoan. Zerbitzua jasotzeko ezinbestekoa da erroldatuta egotea. Erroldatu ondoren, Osasun Txartel Indibiduala (OTI) jasoko duzu Irurako osasun-zentroan eta txartel horrekin medikuaren zerbitzua jaso ahal izango duzu.

OSASUN-ZENTROA

Peio Arrese-Igor, 1

943 44 49 33

Astelehenetik ostiralera
08:00 – 15:00

OSASUN-LARRIALDIAK

112 (SOS deiak)

24 ordu

FARMAZIA

Paper kalea 1

943 50 75 42 / 688 69 85 70

GIZARTE-ZERBITZUAK

Udaleko zerbitzua da, herritar guztiei zuzendutakoa. Gizarte-eskubideen eta baliabideen eskaerak artatzeko, baloratzeko, diagnostikatzeko eta esku hartzeko funtzioa duena. Bere gain hartzen ditu hurrengo alor hauen inguruko informazioa, orientazioa eta kudeaketa:

- Mendekotasuna
- Desgaitasuna
- Laguntzak
- Familiak, haurrak eta nerabeak
- Hirugarren adina
- Genero-indarkeria
- Migrazioa
- Bazterkeria egoerak

Udalek, Diputazioak eta Jaurlaritzak osatzen dute gizarte-zerbitzuetako sistema, eta bakoitzak duen arduraren arabera hartzen du parte.

BIZTANLEEN ARRETA-ZERBITZUA

San Migel Plaza 1, 20271 Irura

943 69 13 33
(Aldez aurretik ordua eskatu behar da, telefonoz edo udaletxean)

Astearte eta osteguetan
09:15-14:00

gizarte@irura.eus

GIZARTE LARRIALDIETARAKO ZERBITZUA

Zarategi pasealekua 99, 20015 Donostia

943 22 44 11
07:00-21:00

112
21:00-07:00

BERDINTASUNA

AHALDUNTZEA ETA ANIZTASUNA LANTZEKO EKIMENAK

Hitzaldiak, tailerrak, antzerkiak, dokumentalak, erakusketak, solasaldiak…

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEA

- Sexu-heziketa programa, hezkidetzan oinarrituta, Irurako Ikastolarekin elkarlanean.
- Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arreta bermatu eta hobetuko duen erakundeen arteko koordinaziorako I. udal-protokoloa.
- Irurako jaietan eman daitezkeen indarkeria sexista kasuen aurrean erantzuteko herri mailako protokoloa.

JAI BERDINZALEAK

Berdintasunean oinarritutako irizpideen lanketa.

943 69 13 33

Astelehena: 9:00-14:00

berdintasuna@irura.eus

ANDRAGORA

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

- Sentsibilizaziorako eta emakumeen ahalduntze feministarako gune iraunkorra.
- Askotariko emakumeen arteko sarea.
- Indarkeria matxistari aurre egiteko gunea.

Zerbitzuaren erabiltzaileak 16 urtetik gorako emakumeak dira eta bazkide izateko ez da baldintza berezirik eskatzen, ez da kuotarik ordaintzen.

Zerbitzuak:

- Arreta eta deribazioa.
- Ahalduntze-eskola (Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak antolatzen du).
- Arreta soziojuridikoa eta psikologikoa.
- Indarkeria matxista laguntza-taldea eta ahalduntzerako taldea.
- Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.
- Kafe-tertulia: jatorri anitzeko emakumeentzako gunea.
- Aholkularitza laborala: etxeko langile zein enplegatzaileentzat aholkularitza laborala.
- Ama sarea. Hilabeteko lehen astelehenean biltzen den elkargunea da.

BIZTANLEEN ARRETA ZERBITZUA

Emakumeon Plaza 1,
20400 Tolosa

943 00 89 67

10:00-14:00 / 16:00-19:00
(ostiral arratsaldeetan itxita)

andragora@andragora.eus

** Andragorako espazioak ere eskatu daitezke (bi irizpide nagusi bete behar dira horretarako: irabazi asmorik ez edukitzea eta Andragorako ildo estrategikoekin bat egitea).*

IRURA MORETUZ

TALDE FEMINISTA

Emakumeen ikusgaitasuna eta ahalduntzea bultzatzeko eta indarkeria matxistaren aurka indarrak batzeko sortutako taldea.

@ iruramoretuz@gmail.com

Zerbitzuak:

- Herriko hainbat esparrutako emakumeei euren egitasmoak garatzeko aukerak ematea.
- Emakumeen ahalduntzean eragitea, sentsibilizazioaren nahiz bestelako ekintzen bitartez.
- Indarkeria matxistaren aurka eragitea, kontzientziazio-kanpainen zein aldarrikapen-ekintzen bitartez.
- Herritarrentzako aisialdiko eskaintza osatzea, feminismoa ardatz.
- Herriko emakumeen ondare materiala eta immateriala biltzea, ezagutzera ematea, zabaltzea eta mantentzen laguntzea.
- Euskaraz bizitzeko aukerak ematea, feminismoaren bitartez.
- Gizarte justu, etiko eta orekatuago bat bultzatzea, ingurumenarekiko zein edozein jatorriko pertsonekiko errespetua adieraziz, antolatuko diren ekitaldietan genero-ikuspegia txertatuz eta gizartearen irakurketa eta ikuspegi kritikoa landuz.
- Herri parekideagoa sustatu, genero-ikuspegia esparru guztietan txertatuz.

ETXEBIZITZA

Udalak dirulaguntza ematen die Iruran erroldatuta daudenei eta indarrean dagoen ordenantzako baldintzak betetzen dituztenei, etxebizitzak alokatu ahal izateko.

Etxea erosteko edo alokatzeko, zuzenean jar zaitezke harremanetan jabe partikularrekin. Horrez gain, Babes Ofizialeko Etxebizitza alokatzeko edo erosteko ETXEBIDEn eman beharko duzu izena. Horretarako laguntza eta orientazioa Gizarte-zerbitzuetan jaso dezakezu.

Aldiz, jabe partikularra bazara, Alokabiderekin kontaktuan jar zaitezke beste pertsonei zure etxebizitza alokatzeko.

ETXEBIDE

012

www.etxebide.euskadi.eus

ALOKABIDE

Errotaburu pasealekua 1,
7. solairua, 20018 Donostia

944 04 47 08

gipuzkoa@alokabide.eus

www.alokabide.eus

HEZKUNTZA

Euskal Herrian 0–16 urte bitarteko hezkuntza doakoa da eta 6-16 urte bitartean derrigorrezkoa da eskolaratzea. Iruran 12 urtera bitarteko eskaintza daukagu:

IRURAKO HAURRESKOLA

(0-2 URTE)

San Migel Plaza 6

943 69 33 11 / 600 97 43 51

irura.irura@haurreskolak.eus

www.haurreskolak.eus

IRURAKO IKASTOLA

(2-12 URTE)

Irurako Ikastola Euskal Herriko hezkuntza-sistemaren barruan kokatutako hezkuntza-komunitate dinamiko eta inklusiboa da. Ikastola hau, 1967. urtean sortu zen, irakasle eta gurasoen arteko lankidetzan oinarrituta, eta euskal hizkuntza eta kultura sustatzen ditu. Ikastolaren helburua ikasleen garapen integrala lortzea da, ingurune jostagarri eta hezigarri batean. Haurtzaroko eta Lehen Hezkuntzako zikloetan eskaintzen ditu bere zerbitzuak, eta proiektu pedagogiko egonkorra mantentzen du.

Zilar Kalea 1

943 69 43 74

irura@ikastola.eus

www.irurakoikastola.eus

LOATZO

MUSIKA ESKOLA

Loatzo Musika Eskola musika eta kultura sustatzen dituen hezkuntza-erakundea da. Eskola honek musika ikasketak eskaintzen dizkie haur eta helduei Iruran bertan, hainbat mailatan, eta bere helburua da musika munduan murgiltzea eta talentuak garatzea. Loatzok ikasleak hezten ditu, oinarrizko tresnetatik hasi eta instrumentu eta teknika aurreratuetara iritsiz. Gainera, musika eta kultura elkarrekin uztartzen dituen giro anitz eta dinamikoa eskaintzen du.

Peio Arrese-Igor 1

943 69 26 19

loatzo@loatzo.eus

www.loatzo.eus

LOATZO
MUSIKA ESKOLA

LIBURUTEGIA

Irurako liburutegian haurrentzako txokoa, KZ gunea eta irakurtzeko edo talde-lanak egiteko espazioa aurki dezakezu. Euskadiko liburutegi sarearen barruan dago eta Liburutegi arteko mailegua (LAM) zerbitzua eskaintzen du.

Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera 16:30-19:00

Ostirala 11:00-13:00

Udako ordutegia (astelehena, asteazkena eta ostirala): 11:00-13:30

Abuztuan itxita.

Peio Arrese-Igor 1

943 69 26 74

liburutegia@irura.eus

Helduen Heziketa – EPA

(18-85 URTE)

Igaralde Kalea 23,
20400 Tolosa

943 67 26 60

012648aa@hezkuntza.net

IKASTEKO GELA

Isiltasunean ikasteko gela San Migel Plazan dagoen Herri Eskolan dago. Ikasteko soilik erabil daiteke. Adina: 18 urtetik aurrera

Gela hau erabiltzeko eskaera egin behar da udaletxeko harrera-zerbitzuan.

ENPLEGUA

Enplegu bila bazabiltza, pertsona ezagunei galdetzeaz eta prentsa-iragarkiak irakurtzeaz gain, erakunde publikoetara jo dezakezu. Enpleguko Euskal Zerbitzuan (LANBIDE) eman dezakezu izena edo Tolosaldea Garatzen agentziako enplegu sailera jo dezakezu informazioaren bila.

LANBIDE

ENPLEGU-BULEGOA

Larramendi kalea 3B,
20400 Tolosa

943 02 38 42

www.lanbide.euskadi.eus

TOLOSALDEA GARATZEN

EKINTZAILETZA ETA ENPLEGU SAILA

Apattaerreka industriagunea 1,
20400 Tolosa

943 65 45 01

www.tolosaldeagaratzen.eus

PEÑASCAL TOLOSA OLHIP

ENPLEGURAKO ETA FORMAZIORAKO ORIENTAZIOA

Aurretik hitzordua hartu behar da.

Usabal industrialdea- 5c pab.,
20400 Tolosa

943 67 61 61

cpfpbtolosa@grupopenascal.com

EUSKARA

Irurako eta Euskal Herriko berezko hizkuntza da euskara. Hizkuntza minorizatua izanik, normalizazio prozesuan dago, baina dagoeneko ohartuko zinen herri honetako biztanle gehienok dakigun eta erabiltzen dugun hizkuntza dela, eta gainera euskaraz bizi nahi duen herria garela. Herritarren artean oso bizirik daude euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako ospakizunak: Euskaraldia, Korrika, Euskararen Nazioarteko Eguna…

Gurea bezalako herriek ezinbesteko funtzioa betetzen dute euskararen normalizazioan, horregatik, guretzako oso garrantzitsua da bizilagun berriak ere euskarara gerturatzea.

Herrira bertakotzeko, ez duzu zure hizkuntza alde batera utzi beharrik, gero eta anitzagoa den herri hau aberastu egiten baita zure hizkuntzarekin. Hala ere, jakin ezazu, euskara ikasteko aukerak badaudela herrian eta eskualdean, eta baita horretarako laguntzak ere.

HERRIAN EUSKARA IKASTEKO AUKERA

Euskara ikasteak abantailak ditu zuretzat: herria ulertzeko eta bertakotzeko bidea irekitzea, hurbiltasuna ematea, lana lortzeko aukera gehiago izatea, haurrei laguntzeko aukera ematea...

Euskara ikasteko taldeak antolatzen ditugu, gutxieneko ikasle-kopuruak izena emanez gero. Matrikulazioa irailean izaten da.

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK

Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak ematen ditu, edozein euskaltegitan eta edozein mailatan matrikulatzen direnentzat.

HERRIKO BIZILAGUNEKIN EUSKARA PRAKTIKATZEKO AUKERA

Mintzalagun taldeak antolatzen ditugu euskara maila hobetu nahi dutenentzat eta euskara gehiagotan erabili nahi dutenentzat, astean ordubetez. Izen-ematea irail-urrian izaten da.

Informazio gehiago nahi duenak udaletxeko euskara zerbitzura jo dezake:

ARRETA-ZERBITZUA

San Migel Plaza 1, 20271 Irura

943 69 13 33 / 688 87 98 00

astearte eta ostegunetan
09:00-14:00

euskara@irura.eus

www.irura.eus

KULTURA, GAZTERIA AISIALDIA ETA KIROLA

Hauek dira Iruran dauden ekipamenduak, eta eskaintzen diren hainbat zerbitzu:

EKIPAMENDUAK

Irurako Ametsa Trinketea
Gimnasioa
Frontoia
Kirol-pista
Skate-parkea
Ur-parkea
Haurrentzako jolas-parkea
Kalistenia-parkea

ZERBITZUAK

Kultur eta kirol sailetik hainbat ikastaro antolatzen dira urtero, haur zein helduentzat (pilates, yoga, areto-bizikleta, cross training, eskulanak, sukaldaritza…)

943 69 13 33

kultura@irura.eus

LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA

Balio hezitzaileak oinarri hartuz, haur eta nerabeak bizitzarako trebatzen dituen aisialdiko zerbitzuak dira. Beste modu batera esanda, beraien garapen pertsonal eta soziala, ongizatea, aniztasuna, aukera berdintasuna, emozioen kudeaketa, ohitura osasungarriak, sormena, talde-lana, erantzukizuna, elkarbizitza, euskara eta askotariko balioak sustatzen dituen zerbitzua. Balio hauek, profesional hezitzaileen laguntzarekin, hezkuntza ez-formaleko ludoteka eta gazteleku zerbitzuen bidez transmititzen dira.

Ludotekan (4-11 urte bitarteko haurrei) eta Gaztelekuan (12-16 urte bitarteko nerabeei) espazio irekia eskaintzen zaie, komunitateak ikus eta entzun ditzan.

TIPI TAPA

65 urtetik gorako pertsonek ibilbide bat egiten dute hilean behin, ariketa fisikoa bultzatzeko eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da. Nahi duenak 10 minutu lehenago luzatze-ariketak egiteko aukera dauka.

ERAGILE SOZIALAK

ONINTZA ABESBATZA

Onintza Abesbatza, musikarekin zerikusia duten jarduerak sustatzeko elkartea da. Herrian sortua, herritarren musika-zaletasuna sustatzeko eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

IRURA BIZI ELKARTEA

Irura Bizi kultur, kirol eta gizarte sustapenerako elkartea da. Herrian sortua, herri-giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko elkargune izateko.

@ **irurabizi@gmail.com**

IRAKURLE TALDEA

Irurako liburutegian sortutako taldea da, tertulia literarioak egiteko elkartzen dena. 8-10 kidez osatutako 5 edo 6 saio egiten dituzte urtean. Saio bakoitzean liburu bati buruz hitz egiten dute.

IRURAKO GAZTE ASANBLADA (IGA)

15 urtetik gorako herriko gazteez osatutako taldea. Kultur mahaiko kide iraunkorra. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, batez ere herriko jaietan.

@ **irurakoga@gmail.com**

IRURA MORETUZ

Emakumeen ikusgaitasuna eta ahalduntzea bultzatzeko eta indarkeria matxistaren aurka indarrak batzeko sortutako taldea.

Informazio gehiago berdintasunaren atalean.

@ **iruramoretuz@gmail.com**

AMETSA PILOTA ELKARTEA

Iruran Ametsa Trinketea eraiki zen xare kirola herrian erroturik zegoelako eta herritarrek, kirolaz haratago, kultur ondare ez-materialtzat hartzen dutelako xare jokoa. Hori dela eta, ondarea kontserbatzea erakunde publikoen zeregina delakoan, udal honek, ondare hori ondorengo herritarrei galdu gabe helarazteko asmoarekin, herriko haurrek xarez jokatzen ikastea bermatu nahi du. Horretarako, badira urte batzuk Ametsa Pilota Elkarteak xareko eskolak ematen dizkiela herriko haur eta gazteei, Ametsa trinketean, urritik ekainerako ikasturte osoan zehar.

@ **info@ametsaxareirura.eus**

JUBILATUEN ELKARTEA

Jubilatuen Elkartea adineko pertsonen ongizatea sustatzen duen elkarte bat da, elkartasuna, laguntza eta ekintzak antolatuz elkarri laguntzeko eta aisialdi aktiboan parte hartzeko aukera eskaintzen duena.

943 69 32 31

IRURAKO KOMUNITATE ENERGETIKOA (TEK IRURA)

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektua, udal-eraikinetako estalkietan sortutako energia berriztagarria doan eskuratzeko aukera ematen duena.

900 85 96 95

irura@tekgipuzkoa22.eus

IRURAKO ERRALDOIEN KONPARTSA

Elkartea 2025ean sortu zen, Irurako Udalak herriko erraldoi berri bat sortu ondoren. Helburu nagusia da erraldoiak herrian eta inguruko jaietan ezagutzea eta haien tradizioa sustatzea.

Irurako erraldoiak hiru dira: baserritar bikotea eta herensugea. Erraldoi hauek herriko kulturaren eta tradizioaren parte dira, eta hainbat ekitaldi eta jaietan izango dugu haietaz gozatzeko aukera.

irurakoerraldoiak@gmail.com

IRURAKO GAZTE ALAIAK ELKARTEA

Elkarte gastronomiko gisa funtzionatzen du gaur egun, garai batean, bere izenaren eta sorrerako helburuaren arabera, kultura, kirola eta jolasa sustatzeko ekintzak antolatzen bazituen ere. Herriko jaietan instalazioak uzten dizkio Kultur Mahaiari eta IGAri hainbat ekitalditarako, eta urtean behin bazkideen eguna antolatzen du. Gainerako egunetan bazkideen beharrak asetzen ditu. 75 bazkide inguru ditu, 18 urtetik gorakoak.

KOMUNIKAZIOA

Irurako Udalarentzat ezinbestekoa da herritarrekin komunikatzea eta horretarako hainbat kanal erabiltzen ditu. Udalaren informazioa zabaltzeaz gain, herritarrak Udalarekin harremanetan jartzeko baliagarriak dira:

ARRETA-ZERBITZUA

943 69 13 33

www.irurako.eus

Udaleko APPa: Irura

* Aisialdi gida hilabetero banatzen da etxe guztietara.

HIRIGINTZA

Obra bat egiteko edo jarduera ekonomiko berri bat martxan jartzeko baimena eskatu behar da udaletxean. Adibidez, etxeko edozein obra handi edo txiki egiteko, edozein jarduera berri abian jartzeko (denda, jarduera industriala…)

ARRETA-ZERBITZUA

San Migel Plaza 1, 20271 Irura

943 63 16 33

hirigintza@irura.eus

www.irura.eus

HONDAKINAK

EDUKIONTZIAK IREKITZEKO TXARTELA

Irurako herritarren konpromisoari esker, udalerrian hondakinen gaikako bilketak gero eta emaitza hobeak ematen ditu. Hala ere, ezinbestekoa da gai honetan lanean jardutea eta herritarren kontzientzia garatzea. Hondakinak ondo sailkatuta ingurumena babesteaz gain, herri gisa hondakinen tasa gutxiago ordaintzea ere lortuko dugulako.

Irurako herritar guztiek hondakinen edukiontziak irekitzeko txartela eskuratu ahal izango dute udaletxean eskatuta. Errefusaren edukiontziak astelehen eta ostiraletan ireki ahal izango dira eta organikoarena berriz, egunero. Gainontzeko frakzioen (papera, plastikoa eta beira) edukiontziak irekita daude eta edozein egunetan bota daitezke bertara hondakinak.

Hondakinen kudeaketari buruzko zalantzak argitzeko udaletxera idatzi daiteke zuzenean:

@ **ingurumena@irura.eus**

AUZOKONPOSTA

Hondakin organikoak kudeatzeko, organikoaren edukiontzia erabili beharrean, auzokonposta egiteko aukera ematen du udalak. Horretarako hiru auzokonposta gune daude herrian. Etxeko hondakin organikoak konposta guneetara eraman ditzakete herritarrek, bertan kudeatu eta hondakinekin ongarri organikoa (konposta) sortzeko. Auzokonposta programan parte hartu nahi duten herritarrak udaletxera hurbildu edo deitu beharko dute beraien eskaera modu egokian tramitatu ahal izateko. Konposta da hondakin organikoa kudeatzeko modurik eraginkor eta merkeena!

TRASTE HANDIAK

Ohiko edukiontzietan utzi ezin daitezkeen altzari edo tresna handiak (altzariak, koltxoiak, linea zuriko etxetresna elektrikoak (hozkailuak, ikuzgailuak, etab.), linea gris-marroiko etxetresna elektrikoak (telebistak, ordenagailuak, etab.) hileko lehenengo eta hirugarren ostegunetan atera ahal izango dira, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Trasteak beiraren edukiontziaren alboan utzi beharko dira.

Mota honetako hondakinak, bestela, Tolosako edo Andoaingo garbiguneetara eraman daitezke.

ORGANIKOAREN POLTSAK

Herritarren hondakin organikoa biltzeko poltsa konpostagarriak jaso ahal izango dituzte, doan, udaletxera bertaratuta. Poltsak jaso ahal izateko ezinbestekoa da hondakinen txartela eramatea.

HERRIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

Herri txikietan komertzio txikia egotea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Komertzio txikia herrietan betidanik egon den zerbait da, herria bizirik mantentzen duena. Gertukoa eta konfiantzazkoa. Iruran ditugun komertzio eta tabernak babestu ditzagun, herri izaten jarraitzeko. Erosi bertatik bertara!

Udalak dirulaguntza ematen du merkataritza-lokal bat bi urtez alokatzeko.

euskaraz

gazteleraz

TELEFONO INTERESGARRIAK:

Irurako Udala: 943 69 13 33

Kulturako bulegoa:

- Trinketea edo frontoiaren erreserbak:
  - Ikasturte osorako: 688 68 04 38
  - Erreserba puntualak: 943 69 24 45

Gizarte-zerbitzuetako larrialdietarako zerbitzua: 943 69 13 33

Garraio publikoa:

- Tolosako taxia: 943 67 04 20
- Lurraldebus: 900 30 03 40
  - https://lurraldebus.eus/
- Trena (Renfe): 912 32 03 20

Bake-epaitegia: 747 40 22 34

Irurako osasun-zentroa: 943 44 49 33

SOS Deiak: 112

Irurako ikastola: 943 69 43 74

Irurako haurreskola: 943 69 33 11

Helduen Heziketa (EPA): 943 67 26 60

Liburutegia: 943 69 26 74

Ametsa trinketea: 943 69 24 45

Farmazia: 688 69 83 70

KZgunea: 943 02 36 57

Loatzo musika eskola: 943 69 26 19

Lanbide: 943 02 38 42

Tolosaldea Garatzen: 943 65 45 01

Etxebizitza- Etxebide: 012

Etxebizitza – Alokabide: 944 04 47 08

Migrazio eta aniztasun saila:
(Tolosaldea Garatzen): 943 65 45 01
(luzapena 6)

Erregularizazioa:

AHOLKU-SAREA TOLOSAN AURREZ AURREKO AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Aurretik hitzordua hartu behar da:
SOS Arrazakeria
Rondilla kalea 34, 20400 Tolosa
943 24 56 27 - 943 24 56 26

AHOLKULARITZA JURIDIKOA TELEFONO ETA E-MAIL BIDEZ
Partikularrak. Biltzen: 09:30-14:00
900 84 08 90 / asesoria@euskadi.eus
Profesionalak. Biltzen: 09:30-14:00
944 00 18 09 / juridika@biltzen.org

IRURAKO
BALIABIDEEN
GIDA

Irurako udala